



hariak

2021eko iraila

Recreando la educación emancipadora



sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Argitalpen hau Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren laguntzarekin (GLEA) egin da, honako proiektu honen arloan: *Hezkuntza kritikoko prozesuak laguntzeko hausnarketak, eztabaidak eta proposamenak. Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra* (2019). Testuen edukia Hegoaren erantzukizuna da soilik, eta ez du nahitaz Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren (GLEA) eta Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren (AECID) iritzia islatzen.

Argitaratze kontseilua:

Inmaculada Cabello Ruiz

Juanjo Celorio Díaz

Sandra Dema Moreno

Alejandra Boni Aristizábal

Joseba Sainz de Murieta Mangado

M^a Luz De la Cal Barreda

Jone Martínez Palacios

Jaume Martínez Bonafé

M^a Jesús Martínez Usarralde

Gema Celorio Díaz

Raquel Calvo Larralde

Amaia del Río Martínez

Lege-gordailua: BI-1805-2016

11.zk., 2021eko iraila

Diseinua eta Maketazioa: Marra, S.L.

Euskerazko itzulpena: Bakun

Azaleko argazkia:


Joseba Sainz de Murieta



Finantzatzaileak:



Argitaratzailea:



UPV/EHU

Zubiria Etxea Eraikina

Agirre Lehendakariaren etorbidea 81 • 48015 Bilbo

Tel.: 94 601 70 91 • Faxa: 94 601 70 40

UPV/EHU

Arabako Campuseko Liburutegia

Nieves Cano kalea 33 • 01006 Vitoria-Gasteiz

Tel.: 945 01 42 87 • Faxa: 945 01 42 87

UPV/EHU

Carlos Santamaria Zentroa

Elhuyar Plaza 2 • 20018 Donostia-San Sebastián

Tel.: 943 01 74 64

www.hegoa.ehu.eus/eu

Aldizkari hau paper ekologikoan inprimatu da, eta horren lehengaia baso-kudeaketa iraunkorraren bitartez eskuratu da.



Agiri hau Creative Commons-en lizentziapean dago. Baimena duzu lan hau kopiatu, banatu eta publikoki hedatzeko, betiere, kontuan hartuta lanaren kredituak adierazi behar dituzula, eta ezin duzula merkataritza-xedetarako erabili. Ezin da lan honetatik eratorritako obrarik aldatu, eraldatu edo sortu. Lizentzia, osorik: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-nd/4.0>

aurkibidea



2

editoriala

Mugak eta ibiltariak. "Bestearen" dekonstrukzio-saiakera bat
Raquel Calvo Larralde

4

sakonean

Etxeak, zaintzak eta migrazioak pandemia garaian,
begirada feminista dekolonialetik
Carmen Gregorio Gil

10

solasean

Erresistentzia-prozesuek gorputzean utzitako aztarnen bidez ere
sortzen da pentsamendua
Helena Maleno Garzón

16

ekin lanari

Bizitzeko ihes egin krimen antolatuaurrean babesteko aliantzak eraikiz
Ana Ferri

Minetik eta bidegabekeriatik sortzen da borroka: CIEs No kanpaina
Sara Verdú

Mugimenduan bizitzea potentzia kolektibo gisa: esperientzia komunitarioa Malen Etxeatik
Florencia M. Vivone

22

begirada konprometituak

zinema/dokumentalak Viaje de ida y vuelta • Mot de passe: Fajara

argitalpenak Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea • Excepcionalismo sexual. Narrativas de la superioridad en el rechazo a la migración y en el populismo de derechas

erakundeak Elín elkarte • SOS Arrazakeria

ezinbesteko agenda Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra
Ziurgabetasunaren aurrean hezkuntza askatzailea • Latinoamerikako Landa Eremuko
Hezkuntzari buruzko Nazioarteko III. Mintegia

26

matxino artean

La historia desde el punto de vista de los nómadas
Laura Casielles

sakonean en profundidad solasean en diálogo ekin
lanari hay alternativas begirada konprometituak
miradas comprometidas matxino artean en rebeldía

Mugak eta ibiltariak. "Bestearen" dekonstrukzio-saiakera bat

Bidaia lehenago hasten da, Senegalgo kostaldean, gauez, patera batera igo baino askoz lehenago. Guardak saihesteko lasterketak baino lehenago. Inoiz elkartuta ikusi ez zenuen billete-mordoa –zure familiak ahal izan bezala bildu duena, zure garaipena haiena guztiena baita– eskudirutan ordaindu baino lehenago. Bidaia lehenago hasten da, San Pedro Sula auzoko zure kalean aurkitu zuten azken gorpua zure alabaren laguntxorik onenarena izan zenean¹; zure etsaia, edozein etsai, zure hiritik hurbil dagoela entzuten duzunean; zure gurasoei jaten ematen zion soroak jada zure seme alabentzat elikagai nahiko ematen ez duenean, denbora asko igaro baita behar bezala euria egin ez duenetik; egun batean zure herriaren arrantza-leku zen aintzira lakua lehortu, eta azken arrainak lokatzetan ito zirenean. Bidaia eskolan ere hasten da, zu baino zaharragoak diren umeek aukera bakarra dutela ikusten duzunean: alde egitea.

"Irteera-efektua dago, ez dei-efektua", aldarrikatzen du Helena Malenok orrialde hauetan. Ordaindu ditzaketentzat luxuak sortzeko, lehengaiak, lurraldeak eta gorpuak birrintzen dituen makina azkarrak milioika pertsona kanporatzen ditu euren jaiolekutik. Pertsonala politikoa da eta politikoak pertsona bakoitzari barnean eragiten dio. Banaka-banaka, erabaki indibidualak pilatzen joaten dira, eta bideak betetzen dituzte, lasaitasun apur baten bila eta euren bizitza berregiteko aukeraren bila dabilozan pertsonen; eta, zorte handiarekin, etortze daudenentzat etorkizun hobea bat ziurtatuta dutelarik itzultzeko itxaropena duten pertsonen. 12Nubes taldeko gazteek euren dokumentalean kontatzen duten bezala, askok "joan-etorriko bidaia" bat planteatzen dute.

Mugak, hortaz, mapa batean dagoen marra bat izateari uzten dio, eta hedadura handi bat bihurtzen da: babesgabea eta mehatxuzkoa, harresiz, hesiz, radarrez eta kontrolez josia, zeinetan, norbaitek, pasatzeko eskubiderik ez duzula esaten baitizu; izan ere, alde okerrean jaio zinen, ezinbestekoa ez den gorputz batean bizi zara. Zu, zure gosearekin, zure ametsekin, zure amesgaiztoekin, zure esku eta hankekin, zure memoria eta izenarekin, zu zeu zara mehatxua.

Hitzak eraldatu egiten dira, eta mugan gauza berriei ematen diete izena; izan ere, mugatik, hasieratik, ikusten dira ondoen munduaren josturak. Ederki asko erakusten da hori *Fajara* dokumentalean. Arabiarrez eztanda esan nahi duen hitza da *fajara*, baina sinopsian esaten duen bezala, Calaiseko Oihanean esanahia aldatu diote: poztasun-oihua adierazten du, beste aldera igarotzea lortzen dutenen oihua.

Muga ez da desagertzen beste aldeko lurra zapal dutakoan. Zure poltsiko hutsean dago, zu zeu zarela egiaztatzen duen dokumentu egokia ez dagoen poltsiko horretan, zauden lekuan zaudela. Orain mugak zure errealitatea eta kalean gurutzatzen zaren pertsonena banatzen ditu. Ez zaituzte begiratzen, baina, ikusten al zaituzte? Mugikorrari gogor heldu eta helbide baten bila hasten zara, buruz dakizun baina ahoskatzen ez dakizun helbidearen bila. Zirtzilkeriak salduko dituzu Plaza del Solen eta zure miseriaren ordainetan lasaitasuna erosiko dute; Zaragozako biribilgune batean itxarongo duzu eta begiak itxiko dituzu esku ezezagunek ukitzen zaituztenean; zure gorputz nekatua arintzen saiatuko zara Almeriako berotegien alboan, bero kiskalgarria egiten duen txabola batean; adineko bat zainduko duzu, gau eta egun, Bilboko auzo aberats batean. Eta esperoko duzu inork ez diola zure poltsiko hutsari begiratu, eta ez direla zure bila etorriko atzeritarrak barneratzeko zentroaren (CIE) linboan giltzapetzeko, kanporatu zaitzaten zain².

1 Krimen antolatua presiopean gertatutako emigrazio batzuen jatorria hobeto ulertzeko, irakurri ale honetako "Hay alternativas" ataleko CEAREN *Huir para vivir* kanpainari buruzko artikulua.

2 Atzeritarrak Barneratzeko Zentroen errealitatea hobeto ezagutzeko, irakurri ale honetako "Hay alternativas" ataleko CIEs No kanpainari buruzko artikulua.

Irregularrak, paperik gabeak, legez kanpokoak... Carmen Gregorio irakasleak *Hariak* aldizkariaren ale honen lehenengo artikuluan aipatzen dituen estatistiken arabera, 300.000 emakume migratzaile baino gehiagok jarduten dute zaintzaren eta etxeko lanen sektorean lanean. Gutxi gorabeherako zifrak dira, kalkuluak; izan ere, haietako askoren izenak eta istorioak azpierreregistro baten parte dira, Europako ongizate-sistemari, modernitate zibilizatuari, ondo bizi den gizarte zuri eta aseari eusten laguntzen dion funtsezko zeregin bat ezkutuan uzten duen azpierreregistroaren parte. Gregorioren arabera, sistema honen engranajea hauek biziagotzen dute: "generoen arteko ezberdintasunek, klaseak eta sexualitateak, baina baita herritartasunak eta kolonialismoak ere. Eta horixe da etxeko lanen eta zaintzaren sektore ekonomikoa Hegoalde Global deritzotenik datozen emakumeentzako gordetzearen zergati historiko eta politikoa. Malen Etxean ere, emakume migranteek Zestoan eraikitako proiektuan, antzeko ondoriora iritsi ziren: "Bizirauteko eta guk geure buruari nor ginen galdetu aurretik gizarteak esleitzen zigun lekua ulertzeko elkartzen gara [...]; iritsi ginenean behar gintuen eta orain gure presentzia eztabaidatzen duen gizartea ulertzeko, bertan ibiltzeko eta defendatzeko", deskribatzen dute aldizkari honetako *Alternatibak badaude* batean.

Azkar ikasten duzu. Zeu zara bestea, ezezaguna, munstroa. Albisteetan munduaren amaieraren seinale gisa agertzen zara, izurrite bat bezala. Zure aurpegia etsita dauden beste milaka pertsonaren aurpegiekin nahasten da. Izenik gabe, gizatasunik gabe. Horrenbestez, zer eskubide erakuts ditzakezu herritarra ez bazara? Gizaki batek izan beharko lukeen itxura ere ez baduzu? Kanean zure begirada saihesten duten pertsona horiek ez dute ikusten haietako bat zarela, ezin dute ikusi. Ikusiko balute, onartu beharko lukete zuk ere bertan egoteko eskubidea duzula, hemen borrokatzekoa, hemen amestekoa. Eta, hortaz, nork mugiaraziko luke mundua? Nola zaindu ahal izango lituzkete guraso edadetuak, bakar-bakarrik, euren errutina zorrotzei jarraitu behar badiete? Nork erosi ahal izango lituzke larunbat goizero produktu freskoak supermerkatuan? Nola begiratu ahal izango lizukete begietara eta justifikatu ez zutela ezer egin mugan heriotza-industria gelditzeko?

Modernitate europarra, arrazionaltasuna hainbeste maite duen hori, eremu guztietan neurri-unitateak ezartzen ahalegindu zen. Planeta neurtu eta metro-patroia lortu zuten. Distantzien eta tamainen inguruko eztabaidak betirako konpondu behar zituen platinozko eta iridiozko barra bat zen, eta kontu handiz gorde zuten Sèvresen, Paristik gertu, Pisuen eta Neurrien Nazioarteko Bulegoan. Gauza bera egin zuten pisuarekin eta tenperaturearekin, baita gizateriarekin ere. Eta gerora ikusi zen neurri horietako bat ere ez zela hain zehatza... batez ere gizakiari zegokiona: izaera indibiduala, gizona, zuria, burgesa, arrazionala eta heterosexuala. Frantz Fanonek³ "ez izaki" deitu zien profil estu horrekin bat egiten ez zutenei, eta gizadiaren bertsio eraldatu, hondatu eta kaxkarragoko kideztat jo eta zaintzapean izan eta erabili egin daitezkeela uste zuten horiei. Giza eskubideak testuinguru horretan jaio ziren, eta unibertsal bihurtzeko asmoan, lagundu egin zuten mundua ulertzeko eta harekin erlazionatzeko beste modu batzuk ezeztatzen eta ezkututzen, nahiz eta haren corpusean gero eta eskubide eta subjektu gehiago sartu.

Bizitza aurrera doa, baita alde honetan ere eta, egunen batean, zortea baduzu, zure moduko beste emakume batzuk topatzen dituzu eta zure burua ikusten duzu haren aurpegia, haren desioetan. Begiratu eta ikusi egiten zaituzte, entzun eta kasu egiten dizute, ukitu eta sentitu egiten zaituzte, lan egin eta borroka egiten dute; eta, zure moduan, presente egotea eta "gu" estu horren espazioan izan badagoen tartea zabaltzeko eskatzen dute, askotan, "gu, emakumeok" baten bitartez. Kolektibo eta pertsona horietako batzuk *Hariak* aldizkariaren 11. ale honetan daude, izan ere, ale honen helburua pentsamendua eta ekintza politikoa beste leku batzuetatik eraikitzea eta heziketa emantzipatzailea egia bihurtzen ahalegintzea da.

Laura Casielles poetak dio nomadentzat hau dela muga⁴: "atzean uzten duzun horren alboko zerbait [...] desirarik eta gabeziarik ez duen jakin-minarekin. Utz dezagun ba atzean.

Raquel Calvo Larralde

3 FANON, Frantz (2009): *Azal beltza, maskara zuriak*. Akal, Madril.

4 Irakurri "En rebeldía" ataleko Laura Casiellesen olerkia.



Etxeak, zaintzak eta migrazioak pandemia garaian, begirada feminista dekolonialetik

Carmen Gregorio Gilek utzitako irudia.

Carmen Gregorio Gil Gizarte Antropologiako irakasle titularra da **Granadako Unibertsitatean** (UGR), eta ikerketa-talde hau zuzentzen du han: "*Otras. Perspectivas feministas en investigación social*" <<http://wpd.ugr.es/~pfisiem/wordpress>>. Bere ikerketa, aitzindaria, migrazio transnazionalen generazio-prozesuei buruzkoa, 90eko hamarkadan hasi zuen; gizartean erreproduzitzen diren desberdinkeriak analizatzen ditu, generoari, klaseari, ahaidetasunari, immigrazioari eta historia kolonialari lotutakoak. Egun, berak koordinatzen duen UGRko ikerketa-taldea proiektu baten parte da: "*El cuidado importa. Impacto de género en las cuidadoras/es de mayores y dependientes en tiempos de la Covid-19*". Supera COVID-19 funtsak finantzatu du proiektua, eta Universidad Rovira i Virgiliko Dolors Comas D'Argemir da zuzendaria.

2020ko martxoaren 23an mezu elektronikoa bat jaso nuen, honako gaiarekin: "*Garrantzitsua: Etxeko langileak eta zaintzaileak koronabirusaren aurkako gizarte-babeseko neurrietatik kanpo utzi dituzte. EZIN DUGU ONARTU!!*" Mezuak atxikitze-gutun bat zekarren, gobernuko kideei zuzendua: Gobernuko presidenteari; Gizarte Gaietako presidenteordeari; Lan eta Gizarte Ekonomiako ministroari; Gizarteratze, Gizarte Segurantzza eta Migrazio ministroari, eta Berdintasun ministroari.

Hau zioen idazkiaren hasierak: "Etxeko langileak eta zaintzaileak zuengana jo dugu, jakitun izanda zeinen egoera apartekoa bizi dugun eta gogoan izanik guztion ardura dela denon ongizatea zaintzea. Eta, horrexegatik, beste behin eta halabeharrez, gure kolektiboaren eskubideak babes ditzazuela eskatzen dizuegu, ez baikaituzue aintzat hartu COVID-19aren inpaktu ekonomikoari eta sozialari aurre egiteko hartu diren ezohiko neurrietan (martxoaren 17an onartu ziren)".

Bizi genuen egoera ikusita, zaugarritasuna eta interdependentzia agerian utzi dituen pandemia baten baitan, nolatan ahaztu zen gobernuak, berriro ere, langile horietaz, nolatan ahaztu zen etxeko langileez –gehiengoa emakumeak–, egunerokotasunean ezinbestekoak diren eta konfinamendu-egoeran are garrantzitsuagoak diren etxeko lanak eta zaintzalanak egiten dituzten pertsonen? Ahaztu egin zitzaion aitortzea luzaroan langile gisa aldarrikatu dituzten eskubideak, ezohiko egoeran kontuan hartu beharrekoak, baina, horrez gain, ahaztu egin zitzaion presakoa zela herritar gisa babestea eta norbera babesteko ekipamendua ematea, bai beren bizitza babesteko, bai eta kutsaduraren hedapena eragozteko ere. Larrialdi-egoera eta pandemia alde batera utzita ere, nola azaldu daiteke, premiazko lana izanik, Estatu espainiarrak Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) 189 Hitzarmena sinatu ez izana? 189 Hitzarmena etxeko langileen inguruko hitzarmena da, LANEk 2011n onartua, eta helburua du "guztiontzako lan duina sustatzea, LANEren bi adierazpenetan ezarritako helburuak gauzatu: laneko oinarritzeko printzipio eta eskubideei buruzko adierazpenean eta bidezko globalizazioa lortzeko gizarte-justiziari buruzko deklarazioan ezarritakoak".

Mugimendu feministaren artikulazioan geroz eta indar handiagoa dute emakume migratzaileek, eta, horri esker, agintari eskudunei sinadura askorekin iritsi zitzairen langile hauen eskubideen aldarria. Izan ere, emakume migratzaileak dira gehiengoa sektore honetan, estatistikek adierazten dutenez¹. Testu horretan agertzen denez, biztanleria aktiboaren inkestaren (BAI) arabera, etxeko langileak eta zaintzaileak 600.000 inguru dira, %96 emakumeak, eta erdiak baino gutxiago daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta. Horietatik %50 etorkinak dira eta, gehiengoak barneko erregimenean egiten du lan.

1985ean Espainiak, Europar Batasuneko beste estatu batzuekin batera, Schengen Ituna sinatu zuenetik (1995etik dago indarrean), itun horren baitako herritarrek mugitzeko askatasuna izan dute, eta, aldi

“Mugen eta hiritartasuna eskubide osoekin lortzeko aukera-desberdintasunen testuinguruan eratu da zaintzaren egungo gizarte-antolakuntza eredua”

berean, erkidegotik kanpoko herritarrentzako euste-hesiak sortu, eta "Europa gotorlekua" eraikitzen joan da. Bere mugen barrurako mugikortasuna txalotzen zuten bitartean, Europa zaharkitzen ari zen, eta eskulan gaztea behar zuten, herrialdeetako ekonomietan krisian zeuden sektoreei eusteko, eta, bereziki, ekonomia ikusezin bat sostengatzeko; harreman sozioekonomikoen esparruan, fabrikaz, nekazaritzaz edo ostalaritzaz gain, etxea ere hor zegoen eta. Baina, *modus operandi* gisa, hiritarren eskubide osoak izan gabe. Nagusitasun historiko batetik begiratuta, mundu-mailako agertoki geopolitikoan nazioz gaindiko potentzia gisa, ongizate-sistemari eutsi nahi zion, eta, aldi berean, zibilizazio-ordenari, nazio-batasunaren bidez. Ongizate ideal horren funtsean, ordea, eredu kapitalista zegoen, desberdinkeria iriaren esker irau zezakeena; genero-, klase-, sexualitate-desberdinkeria, baita hiritartasunari eta kolonialitateari lotutakoak ere. Hori da, azken finean, sektorea feminizatua egotearen, etxearen eta zaintzaren sektore ekonomikoa² Hegoalde Globala deritzon jatorria duten emakumeentzat gorde izanaren arrazoi historiko eta politikoa. Egoerak berdin jarraitzen du, ez da aldatu. Pandemiak, SARS-CoV-2 birusak eragindako koronabirusaren (COVID-19) gaixotasunaren ondorioz jasaten ari garenak, sufrimendu eta heriotza gehiago dakar. Mugen eta hiritartasuna eskubide osoekin lortzeko aukera-desberdintasunen testuinguruan eratu da zaintzaren egungo gizarte-antolakuntza eredua. Eta eredu hori, nahiz eta Espainian, 2006an, gizarte-ongizatearen IV. zutabe gisa aitortuta, Autonomia Pertsonalaren Sustapenerako eta Mendekotasun-egoeran dauden Pertsonen Laguntzeko Legea onartzeari aurrerapen handia izan zen, oraindik ere oso mugatuta dago zaharkitutako populazioaren beharrei erantzuteko.

1 Ikus, adibidez, Diaz Gorfinkel eta Martinez Bujanen (2018) lana. Hartan, sektorearen bilakaerari buruzko datuak jasotzen dituzte, baita biztanleria migratzaileak bertan duen pisua ere, biztanleria aktiboaren inkestaren (BAI) arabera. Datuetan sektorearen formalitate eza aintzat hartzen ez duten arren, argi eta garbi islatzen dute sektorea sendotu egin dela 90ko hamarkadaz geroztik, baita hartan dagoen etorkin-kopurua ere (2018:115).

2 Formalki ez dago lan-sektorerik izen horrekin, baina barne hartuko litzuke etxe barruan egiten diren lanak, hain zuzen ere, "etxeko langileen" Erregimen Bereziak arautuak; baita "etxeko laguntzaileen" lanak ere, Mendekotasunari buruzko Legearen esparruan autonomia-erkidegoetan ezarritako hitzarmenek arautuak.



Carmen Gregorio Gilek utzitako irudia.

Zaugarritasun- eta mendekotasun-egoerek behar duten arreta premiazkoa eta ordezkazina da; baina finantzaketa publiko oso txikia duenez, irabazi asmoko helburu bihurtu da enpresa-sektorearentzat, batez ere zahartzaroaren arretari dagokion arloan. Familiei, etxeei, kontratu pribatuak geratzen zaizkie, etxeko langileen Erregimen Bereziaren baitan (Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean integratua 2012/1/1ean). Horrek, ordea, ez ditu lan-eskubideak bermatzen, guztiz malgua baita kontratuen iraupenari dagokionez (uko egiteagatik kaleratzea), ez baitu langabezia-prestazioa bermatzen eta ez baitu aukerarik Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen babesa jasotzeko, besteak beste, etxe barneko eremu pribatuan lan egiteak dakartzan babesgabetasun-egoeretan. Zalantzarik gabe, eskubideak ez bermatze horren ondorioz³, kostuak nabarmen jaisten dira, haiek

3 1620/2011 Errege Dekretuaren 8. artikulua ezartzen du etxeko langile batek gutxienez Lanbidearteko Gutxieneko Soldata jaso beharko duela lanaldi osoan egiten duenean lan. Lanaldi osoa astean 40 ordukoa da, eta, ordu gutxiago eginez gero, zati proportzionala jaso behar da. 2020. urtean, Lanbidearteko Gutxieneko Soldata hilean 950 €-koa zen, 14 pagatan, hau da, 13.300 €-ko urteko soldata (lanaldi osoan). Kanpoko erregimeneko ordukako lanean, gutxieneko soldata 7,43 euro/ordua zen 2020an, eta barne hartzen ditu igande eta jaiegunen, aparteko pagan eta oporren zati proportzionala. <www.boe.es/eli/es/rd/2011/11/14/1620>.

aitortzeak dakarrena baino baxuagoak. Zalantzarik gabe, zaintzaren gizarte-antolaketaen gure ereduak aldaketa sakona eskatzen du, sektoreko langileen eskubideak onartzeko eta, Dolores Comasek (2019) planteatzen duen bezala, "zaintzaren demokratizazioa" lortzeko, familiaren, Estatuaren eta komunitatearen arteko banaketa parekidea izan dadin. Gure herrialdean politika publikoak familiak egiten duenaren osagarriak direnez, ez haren zeregina ordezkatzeko ez duenez, emakumeak dute ardura gehien, eta, beraz, merkatua indartu egin da (Comas, 2014).

90eko hamarkadan, begirada androzentrikoaz behatzen ziren migrazio-mugimenduak, munduaren Hegoalde Globaleko herrialde kolonizatu zaharretatik (hala nola Filipinak, Maroko, Ekuatore Ginea, Kolonbia, Dominikar Errepublika, Peru edo Ekuador) Espainiar estaturakoak. Halere, emakume ikertzaile batzuk, ikuspegi feministatik, jatorrizko herrialdeetatik zetozen emakumeen ehuneko handia ikusarazten hasi ginen (Gregorio, 1998; Oso, 1998; Ramírez, 1999; Ribas, 1999); baita kopuru horien atzean zegoena ere: haientzat utzitako jarduera ekonomikoak (zaintzaren merkatua izendatu genuena, eta are gutxiago araupetuta dagoen sexuaren merkatua), eta, aldi berean, migratzailearen buru beraiek zirenean, jatorrizko herrialdean geratutako familiarekiko betebeharrak euren bizkarretan zuten pisu izugarria. Etxe nazionalerako buruz hitz egiten hasi ginen, emakume migratzaileek zuten presentzia bikoitza erakusteko: batetik, lan egiten zuten etxeetan eta,

bestetik, emakume horien eguneroko lanik gabe, ugaltzen jarraitu behar zuten etxeetan (Gonzalvez, 2010; Gregorio, 2002). Presentzia bikoitza, nahiz eta bertan ez egon, izan ere, bidalketen bidez, *remesa* esaten zaien bidez, beren etxeen eta jatorrizko herrialdeen diru-iturri nagusi bihurtu ziren. Hala, gainera, ezinbesteko pieza izatera pasa ziren gizarte-harremanen kateen muntaian, transnasionalki sostengatzen baitzuten feminismoan hainbeste aipatutako gizarte-erproduktzio lan hori, haren ikusezintasunetik ateratzeko eta emakumeak hain testuinguru ezberdinetan kokatzen dituzten desberdintasun-egoerak salatzeke.

Ekonomiaren nozio hegemonikoa feminismotik kritikatu da, merkatu-harremanetan txertatutako ondasunen ekoizpen gisa, eta kritika horren hastapenetan, Edholm, Harris eta Young (1977) antropologoen planteatu zuten elkarri lotutako hiru prozesu ekonomiko aintzat hartzeko beharra: gizarte-erproduktzioa, eskulanaren erreproduktzioa eta giza ugalketa edo ugalketa biologikoa. Izan ere, ekonomia-harremanen nagusitasunak prozesu horiek alde batera utzi zituen ekonomia-arloa definitzerakoan. Asmoa zen analitikoki erakustea emakumeek gizarte-erproduktzioari, eta, horrekin batera, ekonomiari, egiten zizkieten ekarpenak ezabatu egiten zirela, ikuspegi androzentrikotik: gizona ekonomia-hornitzailetzat zuten, eta emakumea, berriz, izaki bizidunen eta lan-indarraren ugaltzaile biologikotzat. Baina, Henrietta Moorek gogorarazten digun moduan (1994:93), "pertsonek ugalketa ez da indibiduo biologikoak birsortzeko edo lan-indarra erreproduzitzeko ekintza, ezaugarri espezifikoak dituzten pertsona-multzo partikularrak sortzeko ekintza bat da, sozialki ezarritako botere-ereduekin bat egiten dutelarik". Horregatik, teoria feministatik, gizarte-erproduktzioaz ari gara, bizitza sostengatzeak dakarren lan guztia barne hartzeko; baina baita botere-harremanez ere, eta, horrekin batera, desberdinkeriak erreproduzitzen dituen ordena sozioekonomikoa salatzeke. Beste era batera esanda, eredu ekonomiko kapitalistak eta eredu neoliberal eta kolonialaren oinarri den ideologiak kontuan hartzen ez dutena, baina ezinbestekoa dena bere gizarte-erproduktziorako, arestian aipatutako Henrietta Mooreren nozioari jarraituz.

Zaintzak, testu honen hasierako "Etxeko langileak eta zaintzaileak" idazkian ageri den bezala, eta etxe-ko lan eta ugaltze-lan gisa teoria feministatik proposatu diren beste batzuek, indar handiagoa hartu dute mugimendu feministan. Hala, 2018ko martxoaren

« Zaintza kategoria politiko bihurtu da, eta mundu-mailako mugimendu feministan aitortzen da »

8an egin zen Nazioarteko Greba Feministan erakutsi zuen zer indar eta ahalmen zuen munduan. 170 herrialde baino gehiago atxiki zitzaizkion grebari⁴, eta berriro deitu zen 2019an, zaintza aldarrikapen gisa hartuta. Zaintza kategoria politiko bihurtu da, eta mundu-mailako mugimendu feministan aitortzen da, hain zuzen ere, historikoki ikusezinak izan diren ezinbesteko jarduerak ikusarazteko, bizitzak egunerokotasunean funtziona dezan egiten diren jarduera horiek, "gu gabe mundua ez baita mugitzen".

Zaintzaren barruan, oraindik aitortu gabe dauden hainbat jarduera daude, oraindik hiritartasun-eskubideak sortzen ez dituzten hainbat jarduera, bai feminitatearekiko lotzen direlako, bai ahaidetasun-harremanen esparruan naturalizatzen jarraitzen dugulako. Adibidez, Glenn-ek (2010), zaintza-lanak dituen dimentsio eta jarduera ugarien berri emateko ahaleginean, bereizi egiten du zaintza fisikoa (janaria, bainua, garbiketa, etab.) eta zaintza emozionala (entzutea, hitz egitea, kontsolamendua eskaintzea, laguntza emozionala, etab.); baita jendeari behar fisiko eta emozionalak asetzen laguntzeko zerbitzuak ere (janaria erostea, paseo bat egiten laguntzea, medikuarengana laguntzea, etab.), eta inguru fisikoa mantentzea (oheko arropa aldatzea, arropa garbitzea, zorua garbitzea, etab.), nahiz harremanak eta bizitza soziala. Harreman horien barruan, bereziki nabarmendu nahi ditut ahaidetasun-harremanek dakartzatenak, naturalizatu egin baita, naturalizat jo, ekoizteko beharrik ez balute bezala (Gregorio eta Gonzalvez, 2012). Jardueren zerrenda amaigabe horretatik haratago, botere-harremanak eta esanahi kulturalak daude jarduera horietan; eta horiek egiten dituztenak eskubiderik gabe eta babesgabatasunean uzten ditugu, ikusezin eta menpekotasunean⁵.

4 «Hainbat herrialde, desberdinkeria aurrerako oihubera. Turkiatik edo Pakistanetik Brasilerara eta Mexikora arte, erakunde feministek mobilizazioak deitu dituzte 170 estatutan baino gehiagotan emakumearen eskubideak aldarrikatzeko», El País egunkaria, 2018ko martxoa <https://elpais.com/internacional/2018/03/07/actualidad/1520452960_137452.html>.

“ Migrazioen inguruan ikuspegi feminista dekolonialetik pentsatzeak eskatzen digu begirada gizarte-erreproduzio parekideagora bideratzeko ”

Migrazioen inguruan ikuspegi feminista dekolonialetik pentsatzeak eskatzen digu begirada gizarte-erreproduzio parekideagora bideratzeko, erdigunean jarriz bizitzarako ezinbestekoak diren jarduerak, *zaintza* ideia bidez aldarrikatzen ditugunak. Pandemiari esker gauza bat ikas dezakegu: bizitzaren iraungarritasunaren gakoetatik bakarrik berma dezakegu gizarte-erreproduzioa (Carrasco, 1993), eskubideak unibertsalizatuz (osasuna, etxebizitza duina, hezkuntza, gutxieneko diru-sarrera), eta ordena heterosexuala, arrazista eta koloniala leherraraziz, eskubide guztiak dituzten subjektuak eta eskubiderik ez dituztenak produzitzen jarraitzen baitu. Bornemanekin (2017) bat, aldarrikatzen dut zaintzeko eta zaindua izateko eskubidea, lehentasunezko prozesu ontologikoa baita, "nazioarteko sisteman gizakiaren funtsezko behar eta eskubide berria". Hortaz, botere-harremanak ikusaraztea etengabeko erronka da, baita zaintza antolatzeko eta praktikatzeko erabiltzen diren esanahien aniztasuna ere, maila transnationalean, kapitalismoa erreproduzitzen duten desberdinkeriak hazten baitoaz etengabe. Eta desberdinkeria horien bidez, birsortu egiten da etekinak bilatzeko mugarik ez duen sistema kapitalista, eta gure bizitza, osasuna, gorputzak, organoak eta gametoak merkantilizatzen ditu.

Bizi dugun pandemiak ikusarazi behar luke pertsona guztien bizitza babestu behar dela, eta erakutsi behar liguke banakako erabakiek ez dutela ezertarako balio. Garrantzitsuena ez da ni kutsatu izana, ni kutsatzeak nire inguruan dituen ondorioak baizik, eta, batez ere, konturatzea pertsona guztiok ez ditugula baldintza material berdinak gure burua zaintzeko eta besteak

zaintzeko. Beraz, berriro ere, utopikoa dirudien arren, ezinbestekoa da zaintza eskubide unibertsal gisa ulertzea, eta ikustea ez lukeela lotuta egon behar gure gaitasun ekonomikoarekin eta enplegutik eratorritako eskubideekin.

Bibliografia

- Borneman, John (1997): "Cuidar y ser cuidado: El desplazamiento del matrimonio, el parentesco, el género y la sexualidad", *Revista Internacional de Ciencias Sociales*, 154.
- Díaz Gorfinkiel, Magdalena eta Martínez-Buján, Raquel (2018): "Mujeres migrantes y trabajos de cuidados: transformaciones del sector doméstico en España", *Panorama social*, 27. 101-118 or.
- Comas D'Argemir, Dolores (2014): "Los cuidados de larga duración y el cuarto pilar del sistema de bienestar", *Revista De Antropología Social*, 24, 375-404. or.
- Comas D'Argemir, Dolores (2019): "Cuidados y derechos. El avance hacia la democratización de los cuidados", *Cuadernos de Antropología social*, 49, 13-29. or.
- Edholm, Felicity, Harris, Olivia eta Young, Kate (1977): "Conceptualising women", *Critique of Anthropology*, 3 (9 eta 10): 101-30.
- Gonzalvez Torralbo, Herminia (2010): *Migración colombiana, género y parentesco: la organización social de los cuidados*, Tesis doctoral, Universidad de Granada.
- Gregorio Gil, Carmen eta Gonzalvez Torralbo, Carmen (2012): "Las articulaciones entre género y parentesco en el contexto migratorio: más allá de la maternidad transnacional", *Ankulegi*, 16: 43-57.
- Gregorio Gil, Carmen (1997): "El estudio de las migraciones internacionales desde una perspectiva de género", *Migraciones*, 1. 145-175 or.
- Gregorio Gil, Carmen (2002): "La movilidad transnacional de las mujeres: entre la negociación y el control de sus ausencias y presencias", in Gregorio Gil, Carmen & Agrela Romero, Belén (ed.): *Mujeres de un solo mundo. Globalización y multiculturalidad*. Granada, Feminae. 84-110 or.
- Gregorio Gil, Carmen (2009): "Políticas de conciliación, externalización del trabajo doméstico y de cuidados y migraciones transnacionales", *III*

5 Ikus "etxez etxeko laguntzaileek" egiten duten sala-keta eskubide eta ikusgarritasun ezagatik, "S.A.D. Las hadas existen" dokumentalean <<https://vimeo.com/307848425>>. Sektore horretako langileak, beren eguneroko lana erakutsi, eta gizarteak alboratzen dituztela salatzen dute, "somos las nadie" esanez. Mila esker Ana Alcázar lankideari dokumental honen berri emateagatik.

Congreso de Economía Feminista, La economía feminista en un contexto de crisis global, Baeza, apirilak 2 eta 3.

Gregorio Gil, Carmen (2017): "¿Por qué hablar de cuidados cuando hablamos de migraciones transnacionales?" in *Quaderns-e de*, 22 zk. (2), Bartzelona, l'Institut Català d'Antropologia. Hemen eskuragarri: <www.raco.cat/index.php/QuadernselCA/article/view/333113>.

Oso Casas, Laura (1998): *La emigración hacia España de mujeres jefas de hogar*, Madril, Instituto de la Mujer.

Ramírez, Ángeles (1998): *Migraciones: género e islam. Mujeres marroquíes en España*, Madril, Agencia Española de Cooperación Internacional.

Ribas Mateos, Natalia (1999): *Las presencias de la inmigración femenina: un recorrido por Filipinas, Gambia y Marruecos en Cataluña*, Madril: Icaria.





Helena Maleno Garzonek utzitako irudia.

Erresistentzia- prozesuek gorputzean utzitako aztarnen bidez ere sortzen da pentsamendua

Helena Maleno Garzón giza eskubideen defendatzailea da, kazetaria, idazlea eta migrazioetan eta gizakien salerosketan espezializatutako ikertzailea. **Caminando Fronteras** taldea sortu zuen; Saharaz hegoaldeko komunitateak laguntzen eta babesten ditu Europaren eta Afrikaren arteko muga pasatzean. Bere lanak aintzatespen ugari jaso du, baina lan hori oztopatu nahi dutenen jazarpena ere jasan du, tartean bi prozesu judizial Espainian eta Marokon, etorkinen salerosketa egotzita. Jasotako sarien artean, honako hauek nabarmentzen dira: Espainiako Abokatuen Kontseilu Nagusiaren Giza Eskubideen Saria, Unión Progresista de Fiscales-en Giza Eskubideen Saria, Nazioarteko Bake Bulegoaren Seán McBride Saria eta Espainiako Giza Eskubideen Elkartearen Kazetaritza Sari Nazionala. Gainera, ikerketak egin ditu hainbat erakunderentzat: SOS Arrazakeria, Oxfam Intermón, Errefuxiatuentzako Jesuiten Zerbitzua, Women's Link Worldwide eta CEAR erakundeentzat, besteak beste (Biografia Wikipediatik hartu da).

Duela gutxi, 2020an argitaratu duzu "Mujer de frontera" liburua. Iruditegi sozialez betetako bi hitz, izenburu labur batean. Mugako emakumeak, agian, migrazioaren alderik ikusezinena dira, eta, aldi berean, estereotipatuena: uraren, mafien, bidaideen eta abarren menpe dauden emakumeak, zaugarriak... Zein dira migratzen duten emakumeen

errealitateak, zure esperientziaren eta ikerketan lanaren arabera?

Helena. Mugako emakumeak bizitza dira. Mugako emakumeek ez dute kriminalizatuak edo biktimizatuak izan nahi; pertsona gisa, emakume gisa dituzten eskubideak aitortzea nahi dute.

Mugan intentsitate baxuko gerra bat dago. Dakigun bezala, emakumeen gorputza gatazka-arma gisa erabili da gerra guztietan, batez ere sexu-indarkeriaren bidez. Indarkeria horrek modu desberdinean zeharkatzen du emakumeen gorputza. Emakume horiek ama dira, jada ama zirelako edo migrazio-bide horretan haurdun geratu direlako; banakako proiektua duten emakumeak dira, baina baita proiektu komunitarioa ere, seme-alaben jatorriaz eta etorkizunaz arduratzen baitira. Nekropolitikaren erdian, bizitza defendatzen duten emakumeak dira.

Batetik, Espainiatik migratzea erabaki duzu Tangerren bizitzeko, eta, bestetik, Gibraltarko itsasartearen gurutzatu nahi dutenei laguntzen diezu eta haiekiko konpromisoa hartzen duzu, European bizimodu duinagoa izan dezaten. Zuretzat, zer esan nahi du mugak?

Helena. Muga espazio bat da, jada ez da lerro bat. Muga lurralde zabal bat da, hainbat heriotza-sistema eta mugimendu-kontrol dituen lurraldea. Sistema horiei esker arau bereziak daude, eta giza eskubideak urratzen dituzte, beste leku edo lurralde batzuetan urratuko ez liratekeen moduan. Ni ere muga batetik netorren. Almeria, jaio nintzen lekua, muga baita, non batez ere esklabotzaren industriak jarduten duen, berotegietan lan egiten duten pertsona guztien bidez. Horrexegatik, niretzat muga nire etxea da, nire bizitza, lagunak, kideak. Bizilekua, bizitzera joan naizen tokia. Lurralde horretan borroka egin behar da, eskubideak defendatu behar dira (beste lurralde batzuetan bezala); intentsitate baxuko gerra bat egiten da lurralde horretan, eta, ondorioz, han bizi diren pertsonen egoerak ezberdinak dira. Bizitza ezberdinak. Uste dut, liburuan kontatzen dudana bezala, jendea hesia gurutzatzen saiatzen zen baso haietan ere bizi zegoela; jendeak arraina saltzen zuen, arraina edo ogia saltzera jaisten ziren inguruko herrietatik, haurrek egindako futbol-estadio bat zegoen... Goizetan sarekadak egoten ziren eta jendeak korrika egiten zuen militarren aurretik; arratsaldetan, ordea, futboleko baloi baten atzetik egiten zuten korrika.

Hain zuzen ere, munduan egoteko aukeratzen duzun posizioagatik, modu ankerrean jasaten dituzu demokrazia honen sistemaren mugak eta espainiar Estatuko egitura batzuen funtzionamendua. Zure prozesu judiziala aurkezten duzu liburuan, eta azaltzen duzu, nola sortu duten zure bizitza pribatuaren eta aktibismo politikoaren inguruko

“ Muga lurralde zabal bat da, hainbat heriotza-sistema eta mugimendu-kontrol dituen lurraldea ”

kontakizun bat, kriminalizat har zaitzaten eta zure ahotsa isilarazteko. Zure aurkako kriminalizazio-kanpaina hori antolatzeke baliabide publikoak erabili zituzten. Zer ezkututzen da horren atzean? Nola da posible pertsona horien aurka egin ez izana?

Helena. Bat-batean UCRIFen (Legez Kanpoko Immigrazio Sareen eta Agiri Faltsuen Espainiako Poliziaren Unitate Zentrala) polizia-ikerketarekin egin nuen topo. Frontexen (Europako mugak kontrolatzeko polizia) lankidetzarekin egiten ari ziren, eta haren baitan Marokori eskatu zioten niri behin betiko kartzela-zigorra jartzeko, paterak noraezean zeudenean Itsas Salbamendura deitzeagatik. Poliziaren txostena ikusi arte ezin izan nuen imajinatu zer zegoen barruan, eta uste dut irakurri izan ez banu ez nukeela sinetsiko. Sinetsi nahi izan dut demokraziak unereren batean funtzionatzen duela. Ezin nuen sinetsi, baina hor zegoen. Hor zeuden zigiluak, Frontex, UCRIF eta CENIFen (Immigrazioaren eta Mugen Espainiako Zentroa, hau ere Espainiako Poliziarena) zigiluak, ustezko bikote sentimentalei buruzko informazioa zuen txostenaren erdian. Horrela hasten zen txostena, ustezko bikote sentimentalekin, tartean emakume bat. Txostenetan, giza eskubideen defendatzaile den emakume bat kriminalizatzeko, lehenik eta behin, puta gisa irudikatzen dute, okerreko bizitza daramala esaten dute; izan ere, emakumeak susmagarriagoak izaten gara bizitza sexual jakin bat badugu. Gezurrez betetako orriak ziren, denak gezurrez beteak. Ez zen polizia-txosten bat, txosten politikoa zen.

Prozesu hura irabazi genuen. Irabazi genuela diot, nazioarteko elkartasuna izan nuelako zentzugabekeria horren aurrean defendatzeko. Txosten horiek hemen neuzkan bitartean, Parlamentuan, Zoido Barne ministroak gezurra erantzun zion EH Bilduko Ion Iñarritu diputatuaren galderari: txosten horiek Marokora noiz eta nola bidali ziren galdetzean, ministroak, ez zirela existitzen erantzun zuen. Oraindik nik dauzkut; prozedura judizialean lortu genituen. Ministroa hori esaten ikusi nuen, eta nire mahai gainean zeuden; itaundua izaten

“Pertsonak beren lurretatik kanporatzen ari dira; ez dago “dei-efektua”, “irteera-efektua” baizik”

ari nintzen. Ikaragarria. Orduan ohartu nintzen nortzuk zeuden guzti horren atzean. Horren atzean Espainiako Barne Ministerioa, UCRIF eta mugak kontrolatzen dituen polizia zeuden. Gainera, polizia gisa oraindik lanpostuan jarraitzen duten pertsonak ere parte hartu zuten. Espainiar Estatuak, gobernu-aldaketaren ondoren ere, ez dio ekin nire aurkako txostenari lotutako ikerketa- eta konponketa-prozesuari; baliteke, gainera, pertsona gehiagoren aurkako txostenak egin izana.

Jarrai dezagun hitz egiten ezkutuan dauden gaien inguruan. Behin baino gehiagotan salatu duzu industria bat dagoela, mugen kontrolean eta pertsona migratuen esplotazioan oinarritutakoa. Horretan sakondu dezakezu? zertan datza sarea, eta nork ateratzen du etekina hortik, zuzenean edo zeharka? Zer estrategia garatzen dituzte pertsonak, erresistentzia egin eta prozesu migratzailearekin aurrera jarraitzeko?

Helena. Bai, mugen kontrolean oinarritzen den industria bat dago, mugimenduaren kontrolean. Batez ere, Europako armamentu-enpresen inbertsioa dago, lehen aipatu dudana intentsitate baxuko gerra bultzatzen dute. Beste gatazka batzuetarako defentsako gastuak jaitsi ondoren, dirua irabazten jarraitzeko nitxo bat aurkitu dute hor. *Transnational Institute* erakundeak baditu horren inguruko txostenak ditu, gaia oso ondo azaltzen dutenak. Espainiako erakundeen txosten batzuek ere azaltzen dute mugak kontrolatzeko sistema horren funtzionamendua. Gerra-enpresa horien inguruan badaude beste batzuk. Adibidez, Ceuta eta Melillako mugimendu-kontrolari esker gehien irabazi duen enpresetako bat Indra da. El Corte Inglés ere atera du etekina bere modura.

Inbertsio militar hori guztia bide bat ixteko egiten dela suposatzen da. Baina ibilbide hori ixten denean, arrisku suagoa den beste bat irekitzen da. Pertsonak beren lurretatik kanporatzen ari dira; ez dago “dei-efektua”, “irteera-efektua” baizik. Hori badakite enpresek, eta militarizatutako eskualde batean dirua irabazten jarraitzen duten bitartean, ibilbide

berriak militarizatzen hasten dira. Hori gertatu da Atlantikoko bidea irekitzean, Alborango itsasoa eta Gibraltarko Itsasartera itxi ondoren. Bide arriskuak irekitzen direnean, gainera, industria kriminalak esaten zaienek dirua irabazten dute.

Mugitzen diren pertsonak gerra-eremuetan daude, eta haietan, heriotza-industriek jarduten dute; hori nekropolitikaren parte da. Gizatalde jakin batzuen heriotza eta sufrimendua XXI. mendeko negozio handienetako bat da.

Zer estrategia garatzen dituzte pertsonak? Erresistentziarako estrategiak. Batzuek egunero bizitza defendatzen dute. Mugitzen diren pertsonak, berriak dira lehenengoak euren eskubideak defendatzen dituztenak. Pateran sartzen direnean ere haien mugitzeko eskubidea defendatzen ari dira. Hori egiten dute emakumeek sexu-indarkeria normalizatzen dutenean, migrazio-proiektu horren trukean ordaindu beharreko prezio gisa; erresistentzia-estrategia gisa onartzen dute. Eta hala egiten dute migrazio-komunitateen bidez antolatzen direnean; muga bat zeharkatu eta gure alerta-telefonoa erabiltzen dutenean; familiakoei edo lagunei muga zeharkatuko dutela jakinaraztean, gerora beraiek edo beraien gorpuak bila ditzaten. Gerra horretan, bizitza defendatzen duten erresistentzia-estrategia asko daude.

Hitz egin dezagun mugen inguruan. Boaventura de Sousa Santosek dioenez, mugak, herrialdeen arteko mugatze zehatz gisa, Europa modernoaren asmakizuna dira; mugarik gabeko mundu baten eta munduko herritartasunaren alde egin zuen Europa horren asmakizuna. Zer pentsamendu eta sentimendu dituzu Europaren inguruan?

Helena. Nire familia Andaluziako gizon eta emakume jorنالariak osatzen zuten, emakume ezkertiar eta anarkistek, eta, Europa, migratu zutenek osatzen zuten, esplotazioa jasan zutenek Alemanian, Frantzia... Ez nintzen hazi pentsatuz Europakoa nintzela; andaluziarra nintzen, eta Europa oso urrun geratzen zitzaidan. Ez daukat, ez neukan eta ez nuen jaso Europakoa izatearen sentimendua. Bestalde, Europa ez da herrien Europa, ezta giza eskubideen Europa ere. Nire ustez, hasieran, Europaren ideia “saldu zigutenean”, herrien Europa zen; adibidez, andaluziar herria onartzen zen beste herriak bezalaxe. Giza eskubideen Europa zen, zerbitzu publikoena. Baina, egia esan, merkantzien Europa da, esklabotzaren Europa, eta, beraz, ez naiz Europa horren parte.



Helena Maleno Garzonek utzitako irudia.

Gero Marokora etorri nintzen, eta nire bizitzako zati handi bat bizi izan dut Afrikatik mugitzen diren pertsonen artean, Afrikako pertsonen artean. Nire semeak afrikarrak sentitzen dira; han hazi dira eta *dariya* hitz egiten dute, beraien hizkuntzetako bat da. Gaztelania dute ama-hizkuntza, baina *dariya* dute komunikatzeko hizkuntza gisa, gizarte-konpromisorako eta gizartearekin erlazionatzeko; beraz, batzuetan, gehiago ulertzen dut Afrikaren kontzeptua, hobeto ulertzen dut afrikarrek nola definitzen dituzten gauza batzuk, europarrek alderatuta. Definizio horretan, hobeto ulertzen ditut nire arbasoen lana eta borrokak. Nire ustez, Europak memoria ahaztu du, herrien memoria ezabatu du. Europa horrek, kontsumoa eta modernitatea sakrosantu gisa saldu dituenak, herri bakoitzaren oroimena ahaztu du. Oroimen horretan, nire andaluziar herriaren memorian, hurbilago sentitzen dut Afrikak eskaini didan bizitza.

Kolonialismoak, kapitalismoak eta patriarkatuak gure pentsamendua eta jarduera zeharkatzen dute, eta horregatik, hezkuntza emantzipatzailearen proposamenean, arrazismoaren fenomenoak kezkatzen gaitu. Arrazakeria hori konstruktu ideologiko gisa gailentzen da European, esklabo-

tzaren historia kolonialarekin batera. Nola deseraiki dezakegu?

Helena. Gerrako politikaren egituraren, negozio kriminal horretan, nekropolitika horretan, arrazismoa funtsezko oinarri ideologikoa da. Egiturazko arrazakeria, arrazakeria instituzionala, kolonialismotik eta esklabutzatik jaio dena, zutabe oso garrantzitsua da. Izan ere, mugimenduak kontrolatzeko politika neokolonialismoa da, bitarteko herrialdeetan ere militarki jarduteko aukera ematen baitu. Guardia Zibilak Mauritania patrulatzen du, eta Senegalen. Frantziak base eta kontrol militarrek antolatu ditu Nigerren, pertsonen mugimendua zelatzeko. Arrazakeria beharrezkoa da negozioari eusteko, baina baita pribilegioen Europa eraiki eta pribilegio zuria mantentzeko. Horregatik, oso interesgarria da, kolonialismoa, kapitalismoa eta patriarkatua desmuntatzeko, Hegoaldeko jakintzekin bat egitea, Europako lurraldeetan dauden pertsonen jakintzekin, eta txabo-

“ Nire ustez, Europak memoria ahaztu du, herrien memoria ezabatu du ”

“Giza eskubideak tresna izan daitezke, guztion alde egiten duten heinean. Baina, hori ez da horrela; izan ere, gizatalde jakin batentzat sortzen ditugu, edo maltzurki erabiltzen”

letako antolaketa autogestionatuen mugimenduen ezagutzekin; horiek, pandemian konfinatzeko pribilegioa ez zutenei janaria ematen jarraitu dute. **Regularización Ya mugimenduak**, adibidez, hainbat talde batu ditu. Kazetari batzuek, hala nola, El Diarioko Moha Gerehou eta TVEko Lucía Mbomio kazetariak, hausnarketa zoragarriak egin dituzte, kolonialismo eta arrazakeria horiei aurre egiteko borroka- eta erresistentzia-estrategien inguruan. Ahots gehiago izan beharko lukete. Lider eta buruzagi horiekin guztiekin elkartu behar gara, konstruktua ideologiko hori desmuntatu eta memoria berreskuratzeko. Herrien memoria ahaztu da, eta herrien memoria anitza da, kolektiboa, errealitate asko biltzen dituen.

Estatuek diote giza eskubideekin konprometituta daudela, harresi eta muga gehiago eraikitzen dituzten bitartean. Hitz egin al daiteke giza eskubideez mugan, edo oximoron bat da? Gaur egun, giza eskubideak tresna egokia dira bazterketa eta diskriminazio gehien jasaten dutenen borroka laguntzeko? Afrikako beste herri batzuekin bizi zara. Ezagutzen al duzu beste ikuskera eta esperientziarik, giza eskubideak dekolonizatzen lagunduko digun esperientziarik?

Helena. Ez dira giza eskubideez ari, pribilegioez baizik, biztanleriaren zati batentzako diren giza eskubideez ari dira. Giza eskubideen konstruktua Nazio Batuek sortu zuten II. Mundu Gerraren ostean. Eskubideen sintesi hori, eta Nazio Batuak bera, Iparralde globalak sortu zituen. Asilo-eskubidea, adibidez, zaharkituta dago, bere ildo nagusiek ez baitiete erantzuten gaur egungo munduko errealitateei. Gainera, pentsamendu zuriak moldatutako eskubidea da. Adibidez, zergatik ezabatu dugu giza eskubideetatik mugikortasunaren eskubidea?

Badaude Hegoaldeko ikuskera eta esperientziak, giza eskubideei beste zentzu bat ematen laguntzen digutenak. Askok gustatzen zait, adibidez, Achille

Mbembe pentsalaria; nekropolitikaren inguruan hausnartzen du, eta kontzeptu hori mugari aplikatu diezaiokegu (nekromuga). Beste pentsalari batek, Valenciak, oso ondo azaltzen du zein den nekromuga hori. Pentsalari asko hil dituzte Afrikako giza eskubideak deskolonizatzen borrokatzeagatik. Afrikako buruzagi asko hil dituzte euren kolonoek, orain dela ez asko, Hegoaldetik beste ikuskera batzuk planteatzeagatik.

Giza eskubideak tresna izan daitezke, guztion alde egiten duten heinean. Baina, hori ez da horrela; izan ere, gizatalde jakin batentzat sortzen ditugu, edo maltzurki erabiltzen. Horren adibide garbia da Kanarietako emakume migratzaileen kasua: seme-alabak kendu zizkieten DNA testak aztertu bitartean, Fiskaltzaren arabera, adingabeak trafiko-sareetatik babesteko asmoz. Erabilera maltzurra da hori. Trafiko-sare horietatik haurrak soilik babestu nahi ditugu, erraz adoptatu daitezkeen haurrak. Babestu nahi balituzkete, eta ama horien eskubideak ez urratu, DNA emaitzak prest egon zitezkeen 3-4 egunetan, baina, hilabete askoren buruan heltzen dira. Ama horientzat ia ezinezkoa da haurrak berreskuratzea kustumak kendu ondoren. Hori, gainera, legea urratuz egiten da; Espainiako Estatuak ezin ditu haurra kendu muga bat gurutzatzeagatik soilik.

Era berean, mugitzen diren haur nerabeen (*menak* deritzenak) eskubideen kasuan, ez ditugu hain zorrotz aplikatzen babes-mekanismo horiek, alderantziz, kriminalizatu egiten dira, sistemari interesatzen zaiolako. Haur izateko eskubidea usurpatzen diegu, adina zehazteko probak erabiliz. Giza eskubideak bidegabeki erabiltzen dira, maltzurki, talde baten pribilegioekin eta bestearen esplotazioarekin jarraitzeko.

Esan izan duzunez, garrantzitsua da emakume migratuen ezagutza-moduak txertatzea. Zer esan nahi duzu horrekin? Zer egin dezakegu, ikaskuntza- eta ikerketa-prozesu kritikoekin konprometituta gaudenok, begirada, esperientzia eta jakintza horiek gure lana zeharkatzeko?

Helena. Hau da gakoa: esperientzia, begirada eta jakintza horiek espazioak zeharka ditzatela, edo okupatzen dituzten espazioak beste espazio batzuk ere har ditzatela. Funtsezkoa da espazio horiek aitortzea, jakintzak aitortzea. Adibidez, hitzaldietara joatean, kartelean jartzen du "izen-abizenak eta zerbaitetan aditua", izen-abizenak eta beste honetan aditua"; jarraian, agertzen da "Amina, Fátima...



Helena Maleno Garzonek utzitako irudia.

testigantzak”, abizena ez da aipatu ere egiten. Testigantza bat besterik ez dira. Bere gorputzak jasan duena ez al da jakintza? Zergatik sortzen da pentsamendu garunean soilik? Pentsamendu arrazional hori, uste duena gizona mentalagoa eta emakumea histerikoagoa dela eta pentsamendua gorputzean ez dela sortzen, Kant-ek defendatzen zuen, misogino handi batek. Erresistentzia-prozesuek gorputzean utzitako aztarnen bidez ere sortzen da pentsamendua. Beste jakintza batzuen barrutik dator, jakintzak ulertzeko beste modu batzuetatik. Lekua egin behar diegu.

Akademian nortzuk dauden pentsatzen dut. Akademian nor dagoen aztertuz gero, ziur asko konturatuko gara badirela gure lurraldeetan mende asko daramatzaten herriak, gure lurraldeen parte direnak, eskubide guztiak aitortuta dituzten herriak, eta ez direnak Akademiaren parte. Horixe gertatzen da ijitoekin eta mugitzen ari diren pertsonekin, iritsi direnekin, gure herrien parte direnekin: ez diegu pentsamendu hori aitortu, esperientzia horiek, jakintza horiek. Espainiar Estatuan badaude buruzagiak, beste jakintza batzuk dituztenak, entzun behar ditugunak. Akademiatik egin diren hausnarketa batzuk ere, adibidez, Marcelo Expósito edo Daniela Ortizenak (mehatxu arrazisten erruz ihes egin behar izan duen artista), baliozkoak dira

(beste batzuenak bezala). Irakurri eta aitortu egin behar ditugu.

Mugimendu feministaren baitan prostituzioari buruz dagoen eztabaidaren baitan, zergatik ez dira foroetan onartzen aspaldian hori eskatzen ari diren emakumeak, putak? Zergatik? Gogoan dut Universidade da Coruña-ko jardunaldi batzuk bertan behera utzi behar izan zirela, puta batek bere jakintzak azaldu nahi zituelako. Ikuspegi, esperientzia eta jakintza horiek ezagutzeko erresistentzia asko dago; pentsamendu hegemonikoarentzako arriskutsuak dira.

Nortzuk gara

Hemen aurkituko gaituzue

- CEAR-Euskadi (Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordea)
- www.pear-euskadi.org

Bizitzeko ihes egin. Krimen antolatuaren aurrean babesteko aliantzak eraikiz

Mundua mugitu egiten da, pertsonok mugitu egiten gara. Baina, batzuek oztoporik gabe eta nahi duten moduan bidaiatzen duten bitartean, beste asko behartuta daude mugitzera, eta hori eragozteko jarrita daude harresiekin egiten dute topo. Horma horiek fisikoak izan daitezke (mugak osatzen dituen egitura fisiko guztia), edo sinbolikoak, hala nola, oztopo burokratikoak. Baina ez hori bakarrik. Horri iritzi publikoa gehitu behar zaio, "gu eta haiek" ideia polarizatua. Eta, gainera, mugimenduen eta mugitzeko arrazioen bizipenak ez dira soilik jatorriko herriaren araberrakoak; emakumeek eta LGTBQ+ populazioak indarkeria berezia jasaten dute.

Euskadiko Errefuxiatuen Laguntzarako Batzordeak (CEAR-Euskadi), 1989az geroztik, babesa eta laguntza ematen die errefuxiatuei, migratzaileei eta aberrigabeei. Gizarte-eraginaren eta -partaidetzaren arloak, gainera, gizarte-eraldaketarako prestakuntza eta eragin politikorako lanak ardatz dituzten proiektuak egiten ditu, besteak beste, estatuko eta autonomietako politiketan benetako aldaketak eragiteko, helburua izanik pertsona horien eskubideak bermatzea. Alde horretatik, erakundeko arlo guztiek, elkarlanean, beharrak eta jarduera-ildoak antzematen egiten dute lan. Lan horren oinarrian dago egitura- eta koiuntura-testuinguruaren aurretiko diagnostikoa, ondoren, eraldaketarako estrategia zehatz bihurtzeko.

Bizitzeko Ihes egin proiektua. *Krimen antolatuaren aurrean babesteko aliantzak eraikiz* argitalpenaren arrazoia, sortzeko aitzakia, iheslarietan dago; Hondurasetik eta El Salvadorretik gero eta pertsona gehiago iristen dira espainiar Estatura eta Euskal

Autonomia Erkidegora, krimen antolatuko indarkeriatik iheska, eta ez dute lortzen nazioarteko babesa. Erakunde eskudunek argudiatzen dute esanez ez dagoela nahikoa ebidentziarik frogatzeko jatorrizko estatuak ez diola babesteko beharrari erantzuten. Baina sakontzen badugu banakoen baldintzetan (azkenean, globalak izaten dira, gizatalde oso bat barne hartzen baitute), babesa ia sistematikoki ukatzearen arrazoietan, eta erantzun instituzionalean, ondorioztatuko dugu Espainiako erakundeek ez dutela identifikatzen krimen antolatua, edozein dela agerpena ere, pertsonak lekualdatzen dituen agente gisa.

Engranajea martxan jartzen

Garatzen ditugun proiektu guztietan bezala, zenbait ardatzetan egituratzen gara, era mailakatuan, eta batzuetan aldi berean jartzen ditugu martxan, gure azken helburura iristeko: erakundeek krimen antolatua agente lekualdatzaitzat aitortzea eta, beraz, nazioarteko babesa emateko arrazoi gisa aitortzea. Hori guztia giza eskubideen ikuspegi integral eta feministatik. Ardatz horiek ez dira konpartimentu estankoak; aitzitik, plastikoak dira, iragazkorak eta norabide anitzekoak dira; hau da, horietako batean lantzen denak eta horren emaitzek eragina izan dezakete besteengan.

Proiektuak erakutsi nahi du krimen antolatua indar zentripetua ezartzen duen agentea dela, eta indar horrek pertsonak kanporatzen dituela hark kooptatutako estatuetan, eta ikusarazi nahi du, baita ere, Mexikon gertatzen dena; igarobide eta helmuga baita Estatu Batuetara doan Erdialdeko Amerikako milaka pertsonarentzat. Ankerkeriaren eta pertsona

migratzaile eta desplazatuen eskubideen urraketa sistematikoaren lekuko pasiboa da Mexiko, kriminal antolatuen ankerkeria eta eskubide-urraketaren lekuko. Lurralde horretan jarduten dira, batez ere mugetan, indarkeria maila izugarrietara iristen den "ez leku"¹ horietan; eta, bien bitartean, biztanleak antolatuta egiten dira, aurre egiteko, erresistentzia egiteko.

Baina helburu horiek ez dira modu aseptikoan, objektiboan eta objektibatuan lantzen. Errealitate objektiboa erakutsi nahi dugu, baina baita kontakizunak ere, bizitza subjektiboak. Subjektiboak, errealitate objektiboaren baitan. Kontakizun horiek bizi izan dituzten pertsonen *euren* munduan dute lekua, baina baita *gurean* ere. Bidea erakutsiko digute, kanporatzen dituzten herrialdetik, xurgatzen dituzten herrialdetatik nola igarotzen diren erakutsiko digute, eta harrera egiten dieten herrialdera nola iritsi diren, nahiz eta herrialdeak ez dituzten beti onartzen. Beraien begiradatik jakin dezakegu haien errealitatea, baina baita gurea ere, beste ikuspegi batetik: gizarte hartzaile gisa, hain zuzen ere, eskubideak urratzen dituen gizarte gisa. Eraldaketarako funtsezko tresna da hau, besteen esperimentazioaren bidezkoa.

Helburu horiek lortzeko, proiektu honetan, zehazki, sentsibilizaziorako estrategia landu dugu: komiki bat sortu dugu, EAEra iritsi diren LGTBIO+ pertsonen lekualdaketen benetako istorioak kontatzen dituen. Pertsona horien bitartez, jakin dezakegu zer sentitzen den, zer behar den eta non geratu zen duintasuna. Sentsibilizazioarekin, *bestearen* begirada transmititu nahi dugu, alteritate kontzeptua praktikan jarri eta batzen gaituzten sinergia horiek bilatu nahi ditugu; nahiz eta, askotan, bi zapalkuntza-sistemak zeharkatzen gaituzten: heteropatriarkatua eta kapitalismoa. Izan ere, krimen antolatua da logika kapitalistaren alde biolentoena; Sayak Valencia autoreak *kapitalismo gore*a esan diona.

Ikerkuntzaren estrategiak balio izan digu, lehenik eta behin, hango eta hemengo gabeziak, indarkeriak, mehatxuak eta eskaerak kontatzen dizkiguten ahotsak jasotzeko. Beste erakunde batzuekin, adituekin eta kaltetutako pertsonekin koordinatutako



CEAR-Euskadik utzitako irudia.

lana da, eta, hartan, lekualdaketa eragiten dituzten arrazoiengan sakontzeaz gain, benetako aldaketa lortzeko ezinbestekoak iruditzen zaizkigun eskaerak lantzen ditugu. Hortik aterako da, halaber, gizarte-eragineko tresna. Horren bidez, aldatu nahi dugu erakundeek eta gizarteak babes-eskaerei ematen dieten erantzuna; bai kabildeo-ekintzen bidez, baita sare sozialetan jarritako komunikazio-kanpainen bidez ere.

Prestakuntzaren bidez, ahots horiek entzunarazi nahi izan ditugu, eta horiekin elkarrengaitzeko aukera eman. Partekatutako dugun ezagutza guztia utzi dugu hemen, bai erakundearen bidez, bai prozesu osoan parte hartu duten arestian aipatutako pertsonen bidez edo erakutsi nahi ditugun errealitateetan eragile aktiboak diren pertsonen bidez partekatutakoa.


Azkenik, proiektu honekin espazioak eta tresnak sortzea espero dugu, gai hau agendan jartzeko, eztabaida sortzeko, iritzia arrazoitzeko eta pertsonak oinarrizko eskubideen subjektu gisa ikusteko, bizitza oso bat izateko eskubidea duten pertsona gisa ere: beldurrik gabe, ziurgabetasunik gabe, bizitza eta zaintza erdigunean jarritako dituzten prozesuen bidez.

Ana Ferri,
CEAR-Euskadiko Gizarte-eragineko
eta gizarte-partaidetzarako lantaldea

Bibliografia

- Augé, Marc (2017): *Los no lugares*. Barcelona: Gedisa.
Valencia, Sayak (2010): *Capitalismo gore*. Madrid: Melusina. Madril.

¹ Marc Auge antropologoak sortutako terminoa, eta "gainmodernitatearen" berezko espazioak definitzen ditu, mugimendua, pertsonen fluxua eta anonimatua ezaugarri dituztenak.



Nortzuk gara

Hemen aurkituko gaituzue

• CIEs NO kanpaina

• www.ciesno.wordpress.com

Minetik eta bidegabekeriatik sortzen da borroka: CIEs No Kanpaina

Ezberdina izatearen minetik, eta bidegabekeriaren aurrean, espazio komunak sortzen dira. Jatorri, genero, klase eta azal ezberdinak. Aukera ezberdinak. Errepresioaren aztarnan, ezberdintasuna intentsitatean eta intentsitate ezberdinak. Lan-ingar sexuatuak eta arrazializatuak. Interseksionalitateak, lurraldeak, subjektuak eta politika zapaltzaileak. Desberdinkeria juridikoa eta horren praktiken instituzionalizazioa. Ustezko ezberdintasunek mina sortzen dute. Berdinak gara, eta ezberdin nahi gaituzte.

Ezberdintasunetik eta bidegabekeriatik mina sortzen da. Minak haserrea esnatzen du. Eta haserreak, kanpaina. Duela hamar urte baino gehiago, lehenengo aldiz ikerketa batek Zuzenbidezko Estatuaren zulo beltz horietan gertatzen zena (eta gertatzen dena) argitu zuen, eta, ondorioz, Atzeritarrentzako Zentro Itxiak (CIE) ixtearen aldeko kanpaina sortu zen: CIEs No.

Ikerketari esker jakin genuen bertan gertatzen zena: tortura, tratu txarrak, bidegabekeriak, mina. Baina, horrez gain, pertsona migratzaileen ahotsari oihartzuna ematea lortu zuen. Ahots horiek kontatzen zuten zentroetan zer gertatzen zen, baita indarkerien aurrean erakundeek agertzen zuten pasibotasuna ere; izan ere, zentro opakuak dira, babesik gabeak, in-punitatea dutenak¹. Zentro horiek Atzeritarrentzako Zentro Itxiak dira, "hotel" eksklusiboak, paperak lortzen ez dituzten pertsonentzat; Estatuak eta atzeritarren legeak lortzera behartzen dituzten paperak ez dituztenentzat. Uzten ez dietena lortzera behartzen dituzte. Pertsona horiek, kanporatzeko mehatxupean bizi dira; horrela, kapitalak etekina ateratzen du². Ba-

besik ez duten gizakiak, ez harrapatzeko ezkutatzera behartuak daudenak, "ez existitzen" bizitzera kondenatuak. Eskubiderik gabe eta bizitzari eusteko mekanismoetan espoliatuta, ontzi hauskorretan pilotzen dira, Itaka baten bila. Baina ez dakite horrek nahi duten guztia kenduko diela. Beraiei kenduz, gure pribilegioak sortzen dira³.

Mediterraneoan zeharkatzen duten milaka pertsonaren sufrimenduaren eta heriotzaren aurrean ezer esan gabe egotea mutazio antropologikoa da; hori salatzeke, eta asalduren, minen, erresistentzien eta duintasunen baturaren ondorioz, CIEs No kanpaina sortu zen.

Valentziako areto hotz batean bildu ginen, han azalduko genuenari erne zeuden, kezkatuta, aretoa bete zuten pertsona zuri guztiak. Kolektiboki, zerbait egitea erabaki zen. Izaera zabaleko zerbait nahi zen, bertan jende guztiak lekua izango zuena. Pertsona eta eskubideen aldeko mugimendu guztientzako gune irekia, arrazakeriaren aurkako gune antifaxista, ezberdintasunez eta pertsona ezberdinez betea⁴.

Munduari zer gertatzen den erakutsi nahi diogu, giltzapetutako ahizpei beren eskubideen defentsan lagundu, hormak zeharkatzen dituzten estamentu polizial, politiko eta are judicialak, euren buruen aurrean, salatu nahi ditugu. Arrazakeria instituzionala salatu, eta horren parte diren lankidetzak politikak, ihes egiten duten pertsonen kontrolera eta errepresiora mugatzen direnak. Beraien lurraldea uztera behartuta dauden pertsonak dira, beste batera iristeko, ustez

1 CEAR (2009): "Conversaciones junto al muro". CEAR (2021eko otsailaren 9an begiratu). Ikus hemen: <www.migreurop.org/IMG/pdf/Informe-CEAR-situacion-CIE.pdf>.

2 Romero, Eduardo (2010): *Un deseo apasionado de trabajo más barato y servicial. Migraciones, Fronteras y Capitalismo*. Oviedo, Cambalache.

3 Alba Rico, Santiago (2006): "Turismo: la mirada canibal" en *Rebelión* (consultado el 9 de febrero de 2021). Ikus hemen: <<https://rebellion.org/turismo-la-mirada-canibal>>.

4 Ouled, Youssef (2020): "Antifascismo y antirracismo. Una alianza necesaria" en *La Marea* (consultado el 9 de febrero de 2021). Ikus hemen: <www.lamarea.com/2020/06/28/antifascismo-y-antirracismo-una-alianza-necesaria>.

segurua zena. Pertsona errefuxiatuak, salerosketaren biktimak, adingabeak, migratzera behartutako txirotuak. Neoliberalismoak harrapatutako emakume eta neskatuak, euren gorputzak eta patua sexuaren eta zaintzaren industriaren esku izango dituztenak. Enpresak eta Estatuak salatu nahi ditugu, Claire Rodierrek ongi izendatu zuenaren bidez: xenofobiaren negozioa⁵. Pedagogia kritikoa erabili, askatasunerako eta gizarteak parte hartzeko mekanismo gisa⁶. Horiek dira gure betebeharrak.

Kezka horien ondorioz, kanpainak herritarren adierazpen ororekin antolatzea erabaki zuen, bere ideia ulertzen eta aldarrikatzen zuten heinean; hau da, irtenbide bakarra dagoela *bestea* giltzapetuta eta desberdin nahi izatearen aurrean, bidegabekeria horren aurrean: CIEak ixtea. CIEak ixtea, politika zapaltzaile eta totalitarioekin amaieraren adierazpen gisa; ez ditzaten gehiago bete gure lurak gose direnekin, gure itsasoak gorpuekin eta gure kaleak zombiek. Tailerrak, performanceak, manifestazioak, hitzaldiak, ikus-entzunezkoak, kontzentrazioak hamar urtez, Zapadores zentroaren atean. Gertatzen ari dena kontatzen duten txostenen argitalpenak⁷. Batzorde juridikoez, presoei laguntzeko batzordeek, eraginak, komunikazioak eta sentsibilizazioak, eta hainbat eta hainbat jarduerak zeharkatu gaituzte denbora horretan. Ibilbide horretan elkar aitortu gara, elkar lagundu eta hazi gara. Batu dira artistak, ikasleak, herriko mugimenduak, feministak... Beste lurraldeek estrategia bera erabili dute, eta elkarrekin hazi gara. Elkarrekin pentsatzen dugu, sentitzen eta borrokatzen dugu. Arrazakeria instituzionalari, ez!

Sentitu, pentsatu eta ekin

CIE aitzakia bat da, sentitu eta pentsatu dezagun. Eta horrekin, ekin dezagun. Izebergaren muturrak, giza mugikortasunerako politiken kudeaketa estaltzen du; politika horiek baldintzatzen dute Baumanek "botatzekoak" gisa izendatu zituen pertsonen bizitza⁸. Gogoetarako espazioa da, migrazio behartuaren mugimenduen eragile nagusi gisa iparralde globalak hegoaldearen aurka egiten duen espolioazioaren

inguruan hausnartzeko⁹. Jada jende asko galdu duena (Samba Martine, Idrissa Diallo...); azken urtean, besteak beste, Marouane¹⁰. Ikertu, ikusgarri egin eta salatu migrazioaren ziklo zapaltzaile eta hori legitimatzeko asmoa duten politika totalitarioak. Mugan errepresiorik ez! Paterak hondoratzeari, ez! Bat ukitzen badute, denok ukitzen gaituzte! Sarekada arrazistarik ez! Deportazio-hegaldirik ez!¹¹

CIEak ixteko aldarria, gizateriari egindako alegatua da. Dominazio-sistema patriarkal kapitalista eta hori sostengatzen duen gobernu konplizeak salatzea da. Gobernuak azpi klase baten bidez mantentzen dute sistema, eta egunero praktikatzen dute genozidioa harengan. Migrazioaren genozidioa.

Kanpainatik, bat egiten dugu lagun migratuen minarekin eta borrokarekin, duintasunetik eta erresistentzietatik ikasten dugu, beste mugimendu batzuekin senidetuz inposatu diguten mundua aldatzen saiatzen gara, logika klasista, matxista eta arrazista aldaraziz, zilegitzen baitu batzuek eskubideak izatea besteena zapaldua. Interdependentzia eta komunitatearen parte izatea aldarrikatzen dugu. *Bestearengan* islatuta sentitzeari uzten diogunean, baliabide urriengatik lehiatzen garenean (kapitalaren, patriarkatuaren eta klase nagusien arteko etengabeko aliantzak gure esku uzten dituenak), une horretan arraza bakarraren (giza arraza) partaide izateari uzten diogu. Kolektiboaren zentzua galtzen dugu, eta horrekin, gizatasuna. Orduan, kapitalismorik biolento eta basatienak irabazten du gudua. Baina ez gerra. Irakatsi zigutenez, "minak ez du utopia akabatu".

Ezin da tajuzko eraldaketarik lortu ikuspegi "sentipentsaterik" gabe. Horiek dira gure amorrua eta motoreak. Gure pedagogia kutsaduran datza. Hiriko txoko guztietara heldu nahi dugu, mundu osora. Eta gizarteko pertsona guztiengana. Askatasunerako pedagogia erabiltzen dugu, harreman mota bakarria ezagutzen duena: berdinen artekoa.

Sara Verdú

5 Rodier, Claire. (2013): *El negocio de la xenofobia. ¿Para qué sirven los controles migratorios?* Madrid, Clave Intelectual.

6 Freire, Paulo (1975): *Pedagogía del Oprimido*. Madrid, S.XXI..

7 Campaña CIEs No (2013): "¿Cuál es el delito? Caso Zapadores" en CIEs No (2021eko otsailaren 9an begiratu). Ikus hemen: <<https://ciesno.wordpress.com/2020/06/15/informe-cie-de-zapadores-sin-derecho-a-tener-derechos>>.

8 Bauman, Zigmunt (2005): *Vidas desperdiciadas. La modernidad y sus parias*. Barcelona. Paidós.

9 Romero, Eduardo (2011): *Quién invade a quién. Del colonialismo al II Plan África*. Oviedo. Cambalache.

10 Vives, A. (2019): "Poques respostes per a tantes preguntes sobre la mort de Marouane Abouobaida" en La Directa (2021eko otsailaren 9an begiratu). Ikus hemen: <<https://directa.cat/poques-respostes-per-a-tantes-preguntes-sobre-la-mort-de-marouane-abouobaida>>.

11 Campaña estatal por el cierre de los CIE (2014): *Paremos los vuelos. Las deportaciones de inmigrantes y el boicot a Air Europa*. Madrid, Cambalache.



Mugimenduan bizitzea potentzia kolektibo gisa: esperientzia komunitarioa Malen Etxeatik

Malen Etxea elkarte duela 17 urte sortu zen, Erdialdeko Amerikatik (gehienak) eta Latinoamerikatik Euskal Autonomia Erkidegora iritsitako emakumeak antolatzen hasi zirenean, bizipenak eta gatazkak bertatik bertara elkarbanatzeko espazioa izateko asmotan; problematizazioa bizi eta beren egoera problematizatzeko; elkargurutzatuz, taldean pentsatu ahal izateko. Hau da, problematika horien diagnostiko kolektibo eta politikotik abiatu zen, esperientzia eta praktika militante batetik.

Erreferenteetako batek dioenez: "Nortzuk garen galdetu aurretik gizarteak esleitu digun lekua ulertzeko eta hartan bizirauteko. Elkarte batean bildu gara gizarte hau –duela hamarkada bat behar gintuen eta gaur egun gure presentzia kuestionatzen duen gizarte– ulertzeko, hartan ibiltzeko eta defendatzeko. Hala, konplizitateak sortzen joan ziren, aliantzak egiten, elkar entzuten, eta agertoki bat gauzatzeko joan zen emakume langileen –gehienak zaintzaren sektorekoak, barneko erregimenekoak– erakunde honentzat.

Kideek jakin dute lur azpiko sareak ehuntzen, sare estrategikoak ehuntzen, haiek instituzionalizatzeko saiakerak gaudituta; aurre egin diote beren egoera administratiboaren kriminalizazioari, gobernuo erakundeek eta Estatuak "irregulartzat" jotzen duten egoerari. Harremanetarako potentzialtasun hori da hainbeste irakatsiko diguna; informazio ugari eta aberatsa emango digu, galdera berriak sorraraziko dizkigu.

Borroka kolektiboari esker, Zestoan etxe bat lortu zuten, orduetik Aterpetxea deitua. Espazio hori partekatzeak aukera ederra ematen du bertan egunero egiten den lan fina bizitzeko. Antolaketa komunitarioan oinarritzen den prozesu horri esker, loturak fin-

katu dira, eta harreman horietatik amankomunean dituzten problematikak eta interesak elkarbanatzen dituzte. Era berean, beste erakunde eta talde batzuekin sareak osatzea ahalbidetu du, etxea eta elkarte bera gauditzen dutenak, ez bakarrik Zestoako herrian, baita EAetik haratago ere.

Egunerokotasun hori, beraz, ez da inolako bizikidetzaren edo aurrez ezarritako jarraibideen ondorio, baizik eta komunitatearen eraikuntzaren ondorio, elkarrekin egiten den etengabeko prozesuari esker. Alderdi horrek aukera ematen du eskaerak antolatzeko, kolektiboki pizten diren galderak sortzeko, mekanismo solidarioei eta erritmo horietan oinarritutako mekanismoei dagozkien praktika pedagogikoetarako. Erritmoaren kontua azpimarratu nahi dugu, uste baitugu espazio honetan mamitzen denak errutinekin baino zerikusi gehiago duela erritmoekin; errutina planifikatutakoarekin lotzen baita, betebeharrarekin eta egin beharrekoarekin. Erritmoa, berriz, ibilbide mugikor bat da.

Oinarritzko erakunde horretatik, kideek jakin dute Estatuari eztabaida-guneak lehiatzen, sektorearen eskaerak markatzen eta horiek agenda publikora eramaten, beren eskubideak aldarrikatzen, kriminalizazioa ikusaraziz eta salatuz, intersektionalitatearen ikuspegitik. Baina ez dira borroka horretara mugatu, aldiz, mikropolitikoki lan egiten jarraitu dute, hau da, eskubide guztiak biltzen dituen beste eskubide bat bermatzaren alde jardun dira: bizitzeko eskubidearen alde, sortzeko duen berezko potentzian.

Malen Etxearen eraikuntza politiko eta kolektiboa eta haren etorkizuna eguneroko bizitzan daude, instituzioen logikekin eta denborarekin zerikusirik ez duten prozesuetan. Eguneroko lotura-lan horretan ikusten da, interes komunetatik egiten den lan ho-



Malen Etxeak utzitako irudia.

rretan, Aterpetxearen egunerokotasunean islatzen diren antolaketa-prozesu informalaren, ez-instituzionalen bidez, eta ezin hobeki zabaldu dute lurraldean zehar.

Gertaera hori pentsatzeak komunitatetik ekiteko beharra aldarrikatzera garama, logika eta ikuspegi horretatik abiatuta, hau da, sare subjektiboetatik. Nola egin daiteke lan, ordea, komunitatetik abiatuta eta jarrera kokatu batetik, testuinguru berezi honetan?

Pandemiaren eta konfinamendu-neurrien aurrean, honako gai hauek eztabaidatzeko premia izan genuen: nola berrasmatu elkar laguntzeko moduak; nola eutsi, nahi eta nahia duen bakoitzak bere baitan hartzen dituen berezitasunak entzuteko espazioetara iristeko erraztasunari; indarkeria-egoeren aurrean enpatiaz entzuteari (egoera horietako batzuk migratu aurrekoak dira, eta oraindik ere sentitu daitezke kontakizunetan).

Horrela, talde-espazioak gaitzen sendotzen jarraitzen dugu, informazioak zabaltzeko, kide horiek indarkeria-egoerei buruz adierazitako problematikei buruzko informazioa bideratzeko. Indarkeria horren parte da burokratizazioa ere, kanporatu eta oztopatu egiten baititu kudeaketa garrantzitsuetarako izapideak. Indarkeria da gutxieneko diru-sarreraren edo langabeziaren tramitazioa oztopatzea, lan-eskubideak ez onartzea, oinarritzko eskubideak urratzea...

Elkartek gogor salatu du emakume langile hauen sektore osoak bizi duen prekarietatea; gizarte-babesa eskuratzeko eskubidea eskatu du eta harremanak estutu ditu hainbat erakunderekin; zehazki, konfinamenduan plataforma birtuala sortu dutenekin, eta horren bidez langabeziagatiko laguntza bereziari buruzko kontsulta eta arreta zerbitzua eskaini diete etxeko langileei. Halaber, lurralde-mahaiak koordinatzen parte hartu zuten, gobernuz kanpoko beste erakunde batzuekin batera, eta udalaren esku-hartzearekin, larrialdi-egoeran zeuden familiei elikagaiak eta salgaiak emateko.

Gure aurrean (eta aurka) daukagun sistema kapitalista, koloniala eta patriarkala eguneroko praktiken bidez indartzen da; badirudi ez dagoela beste biderik, hitz egiteko edo gauzak egiteko beste modurik. Badirudi ez dagoela *beste mundu posible bat*.

Gure eguneroko helburuak jarraituko du izaten emantzipazio-prozesuak ehuntzen dituen erlazio-egitura izatea, erlazio posibleak berreraikitzeke lekua, dimentsio etiko eta zeharkako politika gisa.

Florencia M. Vivone

begirada konprometituak

zinema
dokumentalak

Izenburua: Viaje de ida y vuelta

Tokia, urtea: Gasteiz, 2020

Produkzioa: 12Nubes gizarte-heziketa proiektua

Zuzendaritza: Destiny Osarumwense eta Obehi Otasawie

Iraupena: 22 minutu



Sinopsia. Gasteizko gazte batzuek, 12Nubes izeneko gizarte-heziketa proiektua osatzen dutenek, gurasoekin eta aitona-amonekin hitz egiten dute etxea utzi behar izateak dakarren migrazio-esperientziaz. Belaunaldi arteko dokumentala da, eta elkarrizketen eta artxiboko irudien bidez (jatorrizko lekuetatik bidaliak), jatorrizko, igarobideko eta helmugako herrialdeak zeharkatzen ditu.

Lankidetzan egindako proiektua da, Arte eta Lanbide Eskolarekin, Jesus Guridi musika-kontserbatorioarekin eta bere alea jarri duten hainbat pertsonarekin batera garatutakoa. Proiektua garatu eta koordinatu dutenak honako hauek dira: Gasteizko Kale Heziketaren udal programa eta UC3M (12Nubes gizarte-heziketa proiektua).

Hemen ikus dezakezue: <www.youtube.com/watch?v=6oLQ0ZWDV1E&vl=en>



Izenburua: Mot de passe: Fajara

Tokia, urtea: Frantzia, 2017

Zuzendaritza: Severine Sajou

Iraupena: 18 minutu

Sinopsia. Kamioi mamuek pantaila zeharkatzen dute, eta argi-espektrora gisa mugitzen dira goiko aldetik. Calaisko oihanaren (Jungle) irudi infragorriak. Errefuxiatuek Eurotunnelaren bidez Erresuma Batura iristeko itxaropena duten lekukoak.

"Fajara" hitzak, arabieraz leherketa esan nahi du, aurrean duen guztia suntsitzen duena. Aurrera egitea muga bat pasatzea da. Muga, muturreko gradua da, onargarria denari amaiera jartzea. "Fajara" oihu bat da. Hemen, Calaisko oihanean, beste aldera pasatzean hori oihukatzen da, behin iritsita. Irudiak abstraktu bihurtzen dira, semantikak desegiten dira. Pelikula honek (hitzen) esanahien metafisika bilatzen du (Vimeo).

Hemen ikus dezakezue: <www.filmin.es/corto/mot-de-passe-fajara>


argitalpenak

Izenburua: Sei metroko hesia saltatu nahi izan zuen emakumea
Egilea: Amanda Andrades (testua) eta Amelia Celaya (ilustrazioak)
Tokia, urtea: Bilbo, 2020
Argitaratzailea CEAR Euskadi



Sinopsia. *Bost emakume, bost ibilbide, hainbat ahalegin hegoaldeko muga gurutzatzeko. Liburu honetako bost kontakizunek erresistentziaz eta bizitzaz hitz egiten dute. Bost emakumeren erabakitasuna kontatzen dute; indarkeriazko testuinguru ezberdinetatik iheska, hegoaldeko muga gurutzatzen saiatzeko, hesi fisikoz eta sinbolikoz betetako bide luze bat hartzen duten bost emakumeren ausardia. Lauk lortzen dute gurutzatzea, eta orain gure auzokideak dira; beste bat oraindik Marokon dago, "boza" noiz egingo amesten (CEAR Euskadi).*

Hemen ikus dezakezue: <www.pear-euskadi.org/eu/producto/seimetrokohesiasaltatunahiizanzuenemakumea>



Izenburua: Excepcionalismo sexual. Narrativas de la superioridad en el rechazo a la migración y en el populismo de derechas
Egilea: Gabriele Dietze
Tokia, urtea: Iruñea, 2020
Argitaratzailea: **Katakrak Liburuak**

Sinopsia. *Migrazioa baztertzeko arrazoi nagusietako bat, batez ere herrialde musulmanetatik datorren migrazioa, hauxe da: pentsatzea, sexuari dagokionez, pertsona migratzaileak oro har arriskutsuak direla eta pentsaera atzerakoia dutela. Hortaz, diskurtso nagusiak mendebaldeko supremazismo kultural eta sexual halako bat kontrajartzen du; mendebaldeko sexualitatea apartekoa delaren ustea.*

Gabriele Dietzek erakusten digunez, pertsona migratzaileen karakterizazio politiko-sexuala beldurraren politika elikatzeke estrategia bat da; eta diskurtso etno-nazionalista eta xenofoborako bidea errazten du. Hala, ultraeskuindarek edo muturreko ultraeskuindarrek (eta ez bakarrik) genero-gaiak atzeritarrekiko gorrotoa eta arbuioa eragiteko nola erabiltzen dituzten aztertzen du; izan ere, askotan, funanbulismo-ariketak egiten dituzte, tokiko antifeminismoa eta atzerriko patriarkatuari egiten dioten kritika bateratzeko (Katakrak Liburuak).

Hemen ikus dezakezue: <www.katakrak.net/cas/lib/excepcionalismo-sexual>

erakundeak

Kolektiboaren izena: Asociación Elin

Eragin-eremua: Ceuta

Web orrialdea: www.asociacionelin.com



Borrokarako idealak. 1999az geroztik, elkarte honen lana izan da giza eskubideak aitortzea, justizia lortzea eta pertsona migratzaileen eskubideak babestea. Karmeldarren Vedruna komunitatea Elin elkartearen parte da, eta atek irekitzen dizkio esperientzia honetan parte hartu nahi duen orori. Ceutara iristen diren pertsona migratzaileei ongietorria ematen egiten du lan, baita laguntza eta orientazioa ematen ere (gaztelerako klaseak, legezko egoerari buruzko zalantzak argitzea edo giza eskubideen urraketa bat salatzea). Penintsulara iritsi ondoren, boluntarioek eta sarean lan egiten duten beste elkarte batzuek ematen dute laguntza eta orientazioa. Sentsibilizazioari dagokionez, euren lanen artean daude gizartearen pertsonen mugikortasuna normalizatzea, aniztasunaren aberastasunaz jabetzea, eta ez ahaztea, batetik, hegoaldeko mugan egiten den giza eskubideen urraketa, eta, bestetik, Europar Batasunaren gotorlekuak eragindako heriotza guztiak (Elin elkarte).



Kolektiboaren izena: SOS Arrazakeria

Eragin-eremua: Espainiar estatua

Web orrialdea: www.sosracismo.eu

Borrokarako idealak. SOS Arrazakeria izen generikoa da, federatutako hainbat erakunde autonomo izendatzeko. Helburu nagusia, Espainiako Estatuan gertatzen diren arrazakeria-adierazpenen aurka borrokatzea da. 80ko hamarkadaren amaieran sortu zen, Espainiako populazioaren artean jarrera arrazista eta xenofoboak hazi zirelako, eta immigrazio hasiberriaren aurka jarduten hasi ziren talde arrazistei erantzuteko. 1992. urtearen amaieran, talde ultraeskuindar batek Lucrecia Pérez immigrante dominikarra hiltzea une gogoangarria bezain mingarria izan zen prozesu horretan. Ohiko jarduera nagusien artean, honako hauek daude: diskriminazio arrazisten edo xenofoboek kasuetarako doako laguntza eta aholkularitza juridikoa, Espainiar Estatuko Arrazakeriari buruzko Urteko Txostena egitea, kasu larrienak eta gizartearen jokabide arrazistak ikusaraztea, eta arrazakeriari buruzko sentsibilizazioa politikaren, hezkuntzaren eta gizartearen arloko instantzietan (SOS Racismo Arrazakeria Federazioa).

ezinbesteko
agenda

Gizarte Eraldaketarako
Hezkuntzaren
V. Biltzarra

Ekitaldia: Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra

Deialdia: Hegoa, Nazioarteko Lankidetzari eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua

Lekua eta eguna: Gasteiz, 2021eko azaroak 18, 19 eta 20

Informazio gehiago: www.congresoed.org/eu

Azaroaren 18, 19 eta 20an Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren V. Biltzarra: ziurgabetasunaren aurrean hezkuntza askatzailea ospatuko dugu Vitoria-Gasteizen. Biltzarrean zehar Maria Paula Meneses, Lia Pinheiro, Marta Pascual eta Rosalba Icaza pentsalarien eskutik, hezkuntza eraldatzailearen prozesuak aberasten dituzten teoria, praktika eta ikuspegiak ezagutzeko aukera izango dugu. Elkarrizketaren bidez, Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza ikuspegi kritikoetatik aztertuko dugu: dekolonialitate, bestelako epistemologietatik eta feminismoetatik, besteak beste.

Gainera, V. Biltzarra sormen kolektiboko gunea izango da. Horretarako, talde txikitan antolatuko gara eta horietan -dinamizatzaile baten laguntzarekin- planteatutako lldo Estrategikoen gainean lan egingo dugu, gure hezkuntza-jarduera (edozein eremutatik: formala, ez-formala eta informala) zentzu eraldatzaile eta kritikoagorantz bideratuko duten proposamenetan aurrera egiteko.

Ekitaldia: Latinoamerikako Landa Eremuko Hezkuntzari buruzko Nazioarteko III. Mintegia

Deialdia: San Luisko Ikastetxeko (Mexiko), Pedagogia eta Teknologia Unibertsitatea (Kolonbia) eta Vale do Rio dos Sinoseko Unibertsitatea (Brasil)

Lekua eta eguna: Birtuala eta erdipresentziala, Mexikon, 2021eko urriak 27, 28 eta 29.

Informazio gehiago: www.colsan.edu.mx • educrural2021@gmail.com



Landa-eremuko XX. mende hasieratik XXI. mende hasiera bitarteko hezkuntzaren prozesu historikoen inguruan hausnartzeko deia egiten du. Garai horrek bat egiten du Mexikoko Hezkuntza Publikoko Idazkaritzaren mendeurrenarekin, eta hor kokatzen da Mexikoko landa-eremuko hezkuntza eta hezkuntza indigena publikoaren iraultzaren osteko prozesuaren hasiera. Era berean, garai horretan landa-eremuko hezkuntzaren mugimendu bat jarri zen martxan Latinoamerikan, sormen pedagogikoak eta gizarte-erresistentziak eraginda; eta trukeak eta gorabeherak izan zituen XX. mendean zehar, gaur arte.

Hori dela eta, III. mintegiak Latinoamerikako landa-eremuko hezkuntzaren mende bateko memoria, hausnarketa eta eztabaida deitu ditu. Horretarako, landa-eremuen iraganeko eta oraingo harremanen elkarrizketa erabiliko da, diziplinarteko, nazioartekoa eta kulturarteko ikuspegi batetik (COLSAN, UPTC y UNISINOS).

matxino artean
en rebeldía



La historia desde el punto de vista de los nómadas

Desde el punto de vista de los nómadas, territorio es una posibilidad abierta.

Desde el punto de vista de los nómadas, el tiempo no se mide, se cuenta.

La frontera, desde el punto de vista de los nómadas, es algo junto a lo que se pasa como junto a un saludo en un idioma que se desconoce, con una indiferencia exenta de rencor y de miedo, con una curiosidad que no contiene deseo ni penuria.